

BALOREZKO PROPOSAMENA

Atal honetan, guk identifikatutako gabeziari aurre egiteko eskainiko dugun zerbitzua aurkeztu eta zehatz-mehatz deskribatuko dugu.

Azken urte hauetan gorakada handia izan dute fisikoa lantzeko kirolek, urtetik urtera arrakasta handiagoa lortuz. Gorakada ikusita eta hurrengo urteetan joera honekin jarraituko duela aurreikusita, gure herriko gabeziak aztertu ditugu jarduera fisikoak lantzeko eskuragarri ditugun zerbitzuekiko. Gabezia hau identifikatuta eta hainbat lanketen ondoren gure Crossfit-eko gimnasioa irekitzea erabaki dugu.

Guretzat arazo nagusia bereziki, Zumarraga, Urretxu eta inguruetan Crossfit-era espezifikoki dedikatzen den gimnasiorik ez dagoela da. Hori dela eta guk aurrera pauso bat ematea erabaki dugu. Crossfit kirola bereziki lantzeko gimnasio bat irekiko dugu Zumarraga-Urretxu eta inguruetako herrietako hainbat pertsonen beharrak asetzeko asmoz.

Gure proiektua berritzailea izango da gure herri inguruetako lehenengoak izango garelako Crossfiteko klaseak ematen. Bezeroei monitoreen laguntzarekin entrenatu nahi badute, bi eskaintza eskeinitako dizkiegu, bakarkakoa eta taldekkoa. Taldekako saioak monitore batekin egingo dira, talde hauek pertsona horiek duten maila fisikoaren arabera



antolatuko dira eta 7 pertsonaz osatuta egongo dira. Maila desberdin bakoitzeko monitore bat izango dugu bezeroentzako onuragarria iruditzen baitzaigu. Izango ditugun bezeroek maila desberdinak izango dituzte eta hauek taldetan banatuko ditugu bakoitzaren egoera fisiko eta ezagutzen arabera. 3 talde egingo ditugu printzipioz: hasiberriak, erdi-mailakoak eta goi-mailakoak, eta hauetako bakoitzean entrenadore bana izango dugu. Honetaz gain, bezeroek lesio bat pasa ondoren aukera izango dute atal hori indartzeko. Talde hauetako

bakoitzarentzat entrenamentu mota desberdina eskainiko dugu, beraien baldintza fisikoa hobetzeko xedearekin. Sarreran egongo den pertsonaren azalpenak entzun ondoren bezero bakoitzak bere egoera ere azalduko dio. Ondoren bezeroak aukera izango du zuzenean talde batean sartzeko edo proba fisikoak egiteko; proba fisikoak egin ondoren argi geratuko zaio bezeroari zein taldetan egoteko maila duen.

Taldekako saioak eskaintzeaz gain, banakako saioak ere eskainiko ditugu; bakarrik edo entrenadore pertsonalarekin. Bakarrik joatea aukeratu duen bezeroak gimnasioko materiala erabiltzeko aukera izango du. Aldiz, beste eskaintza, entrenatzaile pertsonalarekin eta bakarrik joatea aukeratzen duten bezeroei eskaintzen diegu, entrenatzaile bat izango du espreski berari laguntzeko. Bezeroaren garapenaren arabera entrenatzaileak ariketak moldatuko dizkio. Pentsatzekoa den bezala, eskaintza bakoitzak prezio desberdina izango du.

Gure zerbitzuak izango duen funtsezko ezaugarria, dudarik gabe, eskainiko dugun kalitatea izango da. Gure bezero potentzialei ahalik eta instalazio onenak (lokal handia; aldagelekin, komunekin, internetarekin, takilekin...) eta entrenatzaile onenak (Crossfitean adituak diren entrenatzaileak, kirolei buruzko hainbat ikasketa eta titulorekin eta kirolariak) eskaintzen saiatuko gara entrenatzeko materialik egokienarekin batera (teknologia aurreratuenaren mota guztietako makinak).

Azpian dugun taulak dioen bezala, honako hauek dira gure prezioak:

| | Saio kopurua (hilabetean) | Asteko saioa | Saioen iraupena | Saio bakoitzeko kopurua | Guztira |
|------------------------------------|---------------------------|--------------|-----------------|-------------------------|---------|
| Entrenatzaile pertsonalarekin | 8 | 2 | 2h gehienez | 17€ | 136€ |
| Bakarkakoa | 20 ordu gehienez | Nahi adina | 2h gehienez | 2€ (orduak) | 40€ |
| Taldeko saioak entrenatzailearekin | 8 | 2 | 2h gehienez | 10€ | 80€ |

Gure zentroa egunero irekita egongo da igandean izan ezik, egun honetan itxita egongo da, arazorik baldin badago hura konpontzeko. Ordutegia honako hau izango da :

Astelehenetik ostiralera : 08 : 00tik - 22 : 00ra arte

Larunbatak : 08 : 00tik - 20 : 00ra arte

Igandeetan itxita

Entrenatzailearekin gabe eta bakarrik entrenatzera joan nahi dutenak, nahi duten orduan joango dira baina kontuan izan behar dute 20 ordu joan daitezkeela gehienez, ordu hauek, nahi duten bezala beraiek kudeatuko dituzte. Aldiz, bakarrik baina entrenatzailearekin joango direnak entrenatzailearekin ordua eta data finkatu beharko dituzte. Taldetan joango direnak berriz, ordutegia eta egunak entrenatzailearekin adostu beharko dituzte, era honetara guztiak batera joateko aukera izango dute.

Hau guztia kontuan izanik gure proiektuari hasiera emateko irrikitan gaude.